

Dekretua

Gasteizko Udalean Iruzur Fiskalaren kontrako Planaren oinarriko irizpide orokorrak

Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 112. artikuluan xedatutakoaren arabera, zerga-administrazioari dagokio iruzurraren aurkako planak egiteko ardura.

Kultura-aldaketako prozesu batean murgilduta gaude, zeinak, besteak beste, Udalaren zerga-administrazioari zenbait alderdi jorratzea eskatzen baitio, betiere herritarrak erdigunean kokatuko dituen eredu baten bidean. Hona alderdi horietako batzuk: izapidetze elektronikoa, izapideen gardentasuna, datuen eskaera masiboa, papera baztertzea, informazio publikorako sarbidea, herritarrekiko komunikazio argia, eta datuetatik informazioa ateratzeko gaitasuna.

Iruzurraren aurkako planaren helburu nagusia iruzur fiskalaren aurka borrokatzea da, edozein moldetan egiten dela ere, tokiko zerga-sistemaren aplikazioan zerga-justiziaren eta orokortasunaren printzipioei bide emateko; era berean, zerga-betebeharrak norberaren borondatez bete nahia sustatu behar du planak, zergadunei informazioa eta laguntza emateko jarduketak sendotuz, nola aurrez aurre, hala bide telematikoen bidez ere.

Udalaren zerga-administrazioak iruzurraren aurkako zenbait plan onetsi izan ditu azken urteetan. Orain arteko azkena 2021-2023 aldikoa da, hain zuzen ere plan berria definitzeko abiapuntutzat hartu duguna; hartara, jarraipena emango diegu orain amaituko den planean hasitako jarduketa eta egintza ugariri.

Ekintza zehatzak jaso nahi ditugu jarduera-plan batean, betiere efikazia- eta efizientzia-helburuen mende, udal-zerbitzuen eguneroko kudeaketatik harago joateko

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopiatan osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoari buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua.

Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena <i>Firmado por</i>	JUAN IGNACIO ARMENTIA FRUCTUOSO (Concejal Delegado Hacienda)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Seguru) <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	K6ATY3526ESD433SGT6LWAGT7U	Data eta Ordua <i>Fecha y Hora</i>	28/12/2023 08:54:40
Zerbitzaria <i>Servidor</i>	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea <i>Página</i>	1/10
			
K6ATY3526ESD433SGT6LWAGT7U			



aukera izan dezagun, eta zerga-kontrolaren, diru-bilketa jardueraren eta udal-ikuskaritzaren urteko planetatik haraindi, horiek plan integral batean biltzea, gauzatzeko behar diren baliabideekin batera, batez ere arlo teknologikoan eragingo duten neurri eta jarduketak. Horrenbestez, horien eraginak ekitaldi bakar baten muga gainditu behar dutela irizten diogu, benetan eraginkorrak izan daitezten.

Plan berriaren indarraldian jarraitasuna eman nahi diegu aurreko planetako ildoei, baita egitura- eta eduki-nortasunari dagokionez ere. Orain arteko eskarmentuari esker lanaren gorabeherak hobeto ezagutzen ditugula ekin ahal diegu aurreikusitako jarduketei, eta, ondorioz, emaitza hobeak lortzea espero dezakegu.

Lau jarduera-ildotan egituratzen da Iruzur Fiskalaren kontrako 2024-2026 Plana: Zerga-betebeharren urraketak kontrolatzea; zerga- eta bilketa-prozeduren hobekuntza eta eraginkortasuna bultzatzea; koordinazioa, lankidetzeta eta informazio-trukea; eta zergadunei bideratutako informazio- eta aholku-zerbitzuak hobetzea. Ildo bakoitzaren inguruan zenbait egintza eta jarduketa bilduko ditugu, plana indarrean dagoen urte bakoitzari begira.

Jarduerak hainbat ildotan sailkatzean, helburuen arabera antolatu nahi ditugu, kontuan izanik guztiek ere efikazia-maila berarekin eragiten dutela iruzurraren kontrako borrokan.

Urte bakoitzaren amaieran, jarduketek emaitzei buruzko informazioa argitaratzen da Udalaren webgunean, eta jarduketa garrantzitsuenen zein horien emaitza ekonomikoen berri ematen diegu herritarrei, aurrera begira zergadunen zerga-portaeran eragiteko ere baliagarria izan daitekeela uste baitugu.

Jarraian 2024-2026 aldirako Iruzur Fiskalaren kontrako Planaren oinarritzko irizpide edo jarraibide orokorrak azalduko ditugu.

1.- Iruzur Fiskalaren kontrako Planaren irizpide orokorrak.

Zerga-kontrola.

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopiatan osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/ <i>El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</i> Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoari buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua. <i>Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.</i>			
Sinatzailearen izena <i>Firmado por</i>	JUAN IGNACIO ARMENTIA FRUCTUOSO (Concejal Delegado Hacienda)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua) <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	K6ATY3526ESD433SGT6LWAGT7U	Data eta Ordua <i>Fecha y Hora</i>	28/12/2023 08:54:40
Zerbitzaria <i>Servidor</i>	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea <i>Página</i>	2/10
 K6ATY3526ESD433SGT6LWAGT7U			



Urte hauetan abian jarri diren kontrol-jarduerei esker, zerga-aitorpenak erregelamendu bidez ezarritako epean aurkeztu dira, eta zerga-araudia aplikatzean maiz gertatzen ziren akatsak edo irizpide okerretako asko zuzendu ahal izan ditugu.

Kudeaketan, bilketan eta ikuskapenean efizientzia areagotu nahi badugu, informazio-prozesuak, datuen tratamendua eta administrazio-izapideetarako protokoloak hobetu beharrean gaude, hartara zergadunek norberaren borondatez ahalik eta gehien bete ditzaten tokiko zerga-betebeharrak.

Tokiko tributuen konfigurazioak eta diseinuak jarduketa askotan molde proaktiboan jarduteko edo ofizioz aritzeko aukera ematen dio Administrazioari.

Zergadunek aitortu ez dituzten zerga-egitateak ikertzera bideratzen da, funtsean, udal-ogasuneko organoen zerga-kontrolaren jarduera, bai eta zergadunek aitortu dituztenak egiaz eta osorik aitortu beharrekoekin bat datozela egiaztatzen ere.

Eskura duen informazioa kontrastatuz eta tributu bakoitzaren zerga-elementu esanguratsuenen gaineko jarduketak hautatuz burutuko ditu Administrazioak halako kontrol-lanak.

Zerga- eta bilketa-prozedurak hobetzea

Kudeaketa, ikuskaritza eta diru-bilketa organoen lan-prozesuak modernizatu eta berritu beharrean gaude, bai eta zerbitzuen eraldaketa teknologikoko zereginetan aurrera egin beharrean.

Eraldaketa digitalak erraztu egin ditzake zerga-prozesuak, areagotu horien betetze-maila, hobetu datuen kudeaketa eta azterketa, eta sustatu zerga-administrazioen arteko lankidetzak, eta horrek guztiak, aldi berean, sistemaren gardentasuna eta ekitatea hobetzen laguntzen du.

Ildo beretik, prozesuen birdefinizioak eta bitarteko teknologikoen erabileran sakontzeak ekarriko duen eraginkortasun handiagoa ezinbesteko bitartekoa izango dugu

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopiatan osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/ <i>El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</i> Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoari buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua. <i>Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.</i>			
Sinatzailearen izena <i>Firmado por</i>	JUAN IGNACIO ARMENTIA FRUCTUOSO (Concejal Delegado Hacienda)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Seguruak) <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	K6ATY3526ESD433SGT6LWAGT7U	Data eta Ordua <i>Fecha y Hora</i>	28/12/2023 08:54:40
Zerbitzaria <i>Servidor</i>	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea <i>Página</i>	3/10
 K6ATY3526ESD433SGT6LWAGT7U			



kudeaketa efizientearen alde... Eta horrek lagundu egingo digu iruzurra kontrolatzeko eta borrokatzeko jardueran.

Era berean, garrantzitsua da informazioaren eta datuen kudeaketa adimentsua ezartzea, kudeaketa-, ikuskapen- eta bilketa-organoei datu erreal, dinamiko eta objektiboetan oinarritutako planifikazioa egiteko aukera eman diezaiegun. Indarreko araudia aplikatuz ekin nahi diogu horri guztiari; izan ere, araudi horren arabera, mekanismo egokiak ezarri behar dira kudeaketa-, ikuskapen- eta diru-bilketako organoek sortutako informazioa irisgarri, elkarreraginkor, kalitatezko eta berrerabilgarri izan dadila lortzeko.

Zergapekoei informazioa eta laguntza ematea.

Kontrol egokia lortu eta iruzur fiskala saihesteko bidean, Udalaren zerga-administrazioak zergadunei erraztasunak eman behar dizkie zerga-betebeharrak bete ahal izateko, eta tributuei eta udal-zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerei buruzko informazio argia eta zehatza eman behar diete, baita horiek betetzeko bideak eta bitartekoak eskaini ere.

Teknologia berrien bitartez, funtsean, informazioa eskuratu eta zerga-zerbitzuak baliatzeko erraztasunak eman nahi zaizkie zergadunei, herritarrek beren eginkizun eta ahalmenez hobeto jabetu daitezen, gaiak tramitatzeko orduan modu arinagoan egiterik izan dezaten, eta, bidenabar, erantzuteko denbora-tartea murriztu dadin, hartara, eskaintzen den zerbitzuaren kalitatea eta eraginkortasuna areagotu egingo direlakoan.

Zerga-espeditteen izapidetze elektronikoa eta udal-egoitza elektronikoa herritarrei ematen zaizkien zerbitzuak areagotzea eta hobetzea bi neurri estrategikoak dira jarduera-ildo horretan.

Koordinazioa, lankidetzeta eta informazio-trukea.

Esparru horretan, lankidetzeta eta informazio-trukea sendotu eta hobetzeaz gain, areagotu egingo ditugu informazioa biltzeko lanak, kontrol-jarduerari buruzko erabakiak hartzeko eta zergadunen administrazio-zamak arintzeko beharrezkoak diren zergen inguruko datuak eskuratze aldera.

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopiatan osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/ <i>El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</i> Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoari buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua. <i>Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.</i>			
Sinatzailearen izena <i>Firmado por</i>	JUAN IGNACIO ARMENTIA FRUCTUOSO (Concejal Delegado Hacienda)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Seguru) <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	K6ATY3526ESD433SGT6LWAGT7U	Data eta Ordua <i>Fecha y Hora</i>	28/12/2023 08:54:40
Zerbitzaria <i>Servidor</i>	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea <i>Página</i>	4/10
 K6ATY3526ESD433SGT6LWAGT7U			



Beren jardueran tributuen aplikazioari eragiten dioten informazioa kudeatzen duten udal-zerbitzuekin koordinazioa, lankidetzeta eta informazio-trukea hobetu beharrean gaude, baita tributuoak eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerak aplikatzerakoan informazio ustez garrantzitsua kudeatzen dutenekin ere.

Baina baita beste administrazio publiko batzuekin ere, zerga-egitateetan eragina duen informazioa duten aldetik. Horrenbestez, lankidetzeta sendotu nahi dugu zerga-administrazio foralarekin, besteak beste honako hauek lortzeko: Ekonomia Jardueren gaineko Zergan eskumen konpartituen egikaritzan koordinazio hobetu; higiezinaren gaineko datuak lortu, horien bidez Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga kontrolpean izateko; eta Udalaren aldeko kreditu enbargagarrien gaineko jarduketak areagotu.

Estatuko zerga-administrazioari dagokionez, haren lankidetzeta izan nahi dugu, haren lurralde-eremuan diru-bilketako jarduketak egiteko.

Horrenbestez, hauek dira Iruzur Fiskalaren kontrako Gasteizko Udalaren planaren helburuak:

- Zerga-betebeharrak norberaren borondatez bete daitezela sustatzea, zergadunei informazioa eta laguntza emanez, baita zuzenean edo zeharka helburu horretara bideratutako beste edozein zerbitzu ere.
- Zergak aplikatu eta biltzeko prozedurak hobetzea eta berrikustea.
- Zerga-iruzurrik egin ote den ikertu eta egiaztatzen bideratutako jarduerak garatzea.
- Beste administrazio publiko batzuekin lankidetzan aritzea, zergen arloko urraketak detektatu eta erregularizatzeko.
- Udalaren diru-sarreraren kudeaketa, bilketa eta ikuskapen lanetan eraldaketa digitalean sakontzea.
- Udalak egoitza elektronikoaren bidez ematen diren zerbitzuak areagotzea.

Azken batean, Iruzur Fiskalaren kontrako Planaren baitako jarduketa eta egintza guztien oinarrian egon behar dute zerga-prozeduraren eta zerga-bilketaren iruzurraren

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopien osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/ <i>El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</i> Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoari buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua. <i>Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.</i>			
Sinatzailearen izena <i>Firmado por</i>	JUAN IGNACIO ARMENTIA FRUCTUOSO (Concejal Delegado Hacienda)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Seguru) <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	K6ATY3526ESD433SGT6LWAGT7U	Data eta Ordua <i>Fecha y Hora</i>	28/12/2023 08:54:40
Zerbitzaria <i>Servidor</i>	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea <i>Página</i>	5/10
 K6ATY3526ESD433SGT6LWAGT7U			



kontrola (fase guztietan), prozesuen modernizazioa, berrikuntza teknologikoa, eta zergadunari laguntzeko zereginak.

2.- Jarduteko irizpide edo jarraibideak, zergaz zerga.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga

Aurreko urteetan bezala, zergan hobariak jasotzeko eskakizun formal eta materialak egiaztatze lanarekin jarraituko dugu, eta, horrenbestez, salbuespenak ofizioz onartu zireneko baldintzek bere horretan segitzen al dauden egiaztatuko dugu, baita galdatutako salbuespen eta hobariak emateko betebeharrak ere.

Beste zerga batzuk —bereziki, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga eta ekonomia-jardueren gaineko zerga eta tasak— egiaztatu edo ikertzearen ondorioz atzematen diren zerga-egoerak berrikusiko ditugu.

Ekonomia-jardueren gaineko zerga

Hauek dira, oro har, zerga honen funtsezko aldagaiak (eta estu-estu lotuta ageri dira, hirurak ere, bolumen ekonomikoari, lokalen tamainei eta jardueraren ezaugarriei): eragiketa-bolumena, azalera eta instalatutako potentzia.

Bestalde, errolda-eskumena Udalarena izaki —Arabako Foru Aldundiak eskuordetuta—, zergadunak egiten dituen jardueren kalifikazioa berrikusi beharra dago, eta zergaren tarifetan eta horiek aplikatzeko jarraibidean xedatutakoarekin kontrastatu beharra.

Hortaz, hauek izango dira jarduteko irizpideak ekonomia-jardueren zergari dagokionez:

- Berraztertu egingo dugu egiaztatze- edo ikertze-egoeran dauden zergadunen tributazioa beste zerga eta tasa batzuetan, nola alta-egoerari dagokionez, hala kuota zehazteko parametroei (batez ere jarduerari atxikitako lokalen azalera eta eragiketa-bolumena) dagokienez ere
- Informazio-ustiapenak egingo ditugu, zergapekoen matrikula Merkataritza Erregistroan oinarritzen diren datu-baseetako informazioarekin gurutzatuta, milioi

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopiatan osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/ <i>El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</i> Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoa buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua. <i>Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.</i>			
Sinatzailearen izena <i>Firmado por</i>	JUAN IGNACIO ARMENTIA FRUCTUOSO (Concejal Delegado Hacienda)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Seguru) <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	K6ATY3526ESD433SGT6LWAGT7U	Data eta Ordua <i>Fecha y Hora</i>	28/12/2023 08:54:40
Zerbitzaria <i>Servidor</i>	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea <i>Página</i>	6/10
 K6ATY3526ESD433SGT6LWAGT7U			



bat eurotik gorako negozio-zifrak dituzten eta ekonomia jardueren gaineko zergaren matrikulan ageri ez diren enpresak detektatzeko.

- Zergapekoen matrikulari dagokionez, zehazten diren konparazio-aldagaien arabera azalera zuzenari —edo beste zerga-elementu batzuei, hala nola instalatutako potentziari edo besteri— dagokion zerga ordaintzen ari ez diren jarduerak aztertuko ditugu.
- Informazio-ustiapenak egingo ditugu —salbuetsitako enpresen matrikuletatik abiatuta— negozio-zifraren edo jarduera-hasieraren ondoriozko salbuespena bidezko den egiaztatzeke.
- Zergadunek egindako jardueren kalifikazioa kontrolatuko dugu.

Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga

Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergari dagokionez, onura fiskalak kontrolatzeko jarduerekin jarraituko dugu.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)

Zerga horretan jarduerak planifikatu, hautatu eta kargatzeko irizpideak zergaren izaerak zehazten ditu, zeinen elementu nagusia instalazioaren, eraikuntzaren eta obraren kostua baita; beraz, aldagai hori kontuan hartu beharra dago jarduera planifikatzean, kontribuzio-ahalmenaren printzipioaren funtsezko adierazgarri gisa.

Ondorioz, zerga horren inguruko jarduera-irizpideak hauek izango dira:

- Lizentziei eta erantzukizunpeko adierazpenei dagozkien obren benetako kostu erreala egiaztatuko dugu.
- Hobari fiskalak aplikatzeko baldintzak betetzen diren egiaztatuko dugu, obraren onura motaren eta zer-nolakoen arabera hautatuz jarduerak.

Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga

Azaroaren 8ko Zerga Premiazko Araugintzako 8/2021 Dekretuaren bitartez, aldatu egin da hiri-lurren balio-gehikuntzaren foru-arau aldatu egin Toki Ogasunak arautzen dituen foru arauaren testu bategina, Auzitegi Konstituzionalaren 2021eko urriaren 26ko epaira egokitzeke.

Egiaztatzeke kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopien osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/ <i>El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</i> Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoari buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua. <i>Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.</i>			
Sinatzailearen izena <i>Firmado por</i>	JUAN IGNACIO ARMENTIA FRUCTUOSO (Concejal Delegado Hacienda)		
EKS (Egiaztatzeke Kode Seguruak) <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	K6ATY3526ESD433SGT6LWAGT7U	Data eta Ordua <i>Fecha y Hora</i>	28/12/2023 08:54:40
Zerbitzaria <i>Servidor</i>	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea <i>Página</i>	7/10
 K6ATY3526ESD433SGT6LWAGT7U			



Hona legeak zerga-ihesa saihesteko asmoz eman digun beste tresna berri bat: zergadunek aitortutako balioak egiaztatzea.

Horiez gain, udalerrian bizi ez diren pertsonen *mortis causa* eskualdaketen berri eman dezaketen beste administrazio publiko batzuetatik informazioa lortu daiteke, bai eta kontrolpean hartu aitortu gabeko zergapeko egitateen produkzioa islatzen duten sozietate-eragiketa jakin batzuk.

Jabari publiko lokalaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziaren tasak

Udal-jabari publikoaren okupazioak zergapeko egitate ugari sortzen dituzte, zergadunen tributazio zuzena bermatze aldera kontrolatu beharrekoak.

Jabari publikoaren aprobetxamenduaren hainbat modalitate sartzen dira atal honen barruan: hesiak eta aldarnioak, publizitadedunak edo gabeak, ibilgailuentzako ibi eta pasabideak, espazio-erreserbak eta bestelakoak.

Aurreko ekitaldietan baliatutako bide beretik, zuzeneko ikuskapen-lana egingo dugu bide publikoan, zergapeko egitate ba ote den (edo ez) egiaztatzeko, eta erregularizatzeko eskatzen diren elementuak zehazteko (okupatutako azalera).

Era berean, bereziki aipatu behar dira bide publikoan lurzoru, lurpe eta hegaletan egiten diren aprobetxamendu-tasen egiaztapen- eta jarraipen-jarduketak, hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen alde. Horien kuantifikazioa Gasteizko udal-mugarteko fakturazioaren diru-sarrera gordinen % 1,5era iristen da, betiere Toki Ogasunen Foru Arauak jasotzen dituen deskontuak tarteko.

3.- Jarduera-irizpide orokorrak diru-bilketaren kudeaketan

Zerga-betebeharren urraketa (hots, iruzurra) kontrolatu eta ezabatu nahi badugu, diru-bilketaren kudeaketaren eremuan ere jardun behar dugu.

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopiatan osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/ <i>El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</i> Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoari buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua. <i>Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.</i>			
Sinatzailearen izena <i>Firmado por</i>	JUAN IGNACIO ARMENTIA FRUCTUOSO (Concejal Delegado Hacienda)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Seguru) <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	K6ATY3526ESD433SGT6LWAGT7U	Data eta Ordua <i>Fecha y Hora</i>	28/12/2023 08:54:40
Zerbitzaria <i>Servidor</i>	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea <i>Página</i>	8/10
 K6ATY3526ESD433SGT6LWAGT7U			



Hauxe da helburu nagusia arlo honetan: zerga-kudeaketa eta -ikuskaritzako organoek likidatu dituzten zorrak eta Udalak emandako zerbitzuengatik beste diru-sarrerara publiko batzuei dagozkienak benetan kobratuko direla bermatzea.

Jardun-ildo horretan, funtsezkoa da –baliabide teknologikoak sendotzearen bidez– zorraren kobrantzari dagokionez eraginkortasuna areagotzea, batetik zergadunei zerga-betebeharrak euren borondatez betetzen laguntzeko, eta, bestetik, zergak ordaintzera behartuta egonik, betebeharrei muzin egin dietenek ordain dezatela lortzeko ere.

Hortaz, hauek izango dira jarraibideak:

- Zerga-betebeharrak betetzeko erraztasunak ematea herritarrei, eta betebehar horien egoerari buruzko informazioa eskura eskaintzea, hartara tramitazioa sinplifikatuz, eta informazio argi eta ulerterraza eskainiz.
- Hobekuntzak gehitzea eta herritarrei zerbitzu gehiago eskaintzea Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez.
- Zerga-betebeharrak betetzea errazteko ordainbideak sustatzea, banku-helbideratzeak areagotuz zergak ordaintzeko metodo gisa, eta, bereziki, ordainketak epeka helbideratzea eta tarifa fiskal laua.
- Prozedurak mekanizatzeko behar diren informatika-garapenak eskatu behar dira, kudeaketa arintzen lagunduko baitute, eta pertsonal-baliabideak kobratze-lanetarako baliatzeko aukera emango; ezinbestekoa izaki hori, zorra kobratu eta iruzurra saihesteko.
- Zordunen ondasun eta eskubide ezagunak —kontu korranteetako dirua, berehalakoan edo epe laburrean gauza daitezkeen kredituak, ordainsari eta soldatak eta beste— bahitzeko zuzemenak areagotzea.
- Konkurtso-prozesuek eragindako zorren kudeaketan tramitazioa bizkortzea —kontuan izanik prozesu judizial baten barruan egiten dela—, beti ere ordaindu gabeko kredituaren parterik handiena kobratze aldera.
- Administrazioen arteko harremanak areagotzea, erakunde bakoitzak duen informazioa trukatzeari dagokionez ahalik eta lankidetzeta-mailarik handiena lortzeko, indarrean dagoen lege-esparruaren barruan.

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopien integritatearen egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/ <i>El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</i> Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoari buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua. <i>Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.</i>			
Sinatzailearen izena <i>Firmado por</i>	JUAN IGNACIO ARMENTIA FRUCTUOSO (Concejal Delegado Hacienda)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Seguru) <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	K6ATY3526ESD433SGT6LWAGT7U	Data eta Ordua <i>Fecha y Hora</i>	28/12/2023 08:54:40
Zerbitzaria <i>Servidor</i>	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea <i>Página</i>	9/10
 K6ATY3526ESD433SGT6LWAGT7U			



Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko ekainaren 22ko erabakiaren bitartez bere gain utzitako ahalmenaz baliatuz, hau

EBATZI DU:

2024-2026 aldirako Iruzur Fiskalaren kontrako Planaren oinarri diren irizpideak — dekretu honetan jasotakoak— onestea.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko abenduaren 27an.

Izp. Jon Armentia Fructuoso

OGASUN SAILEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopien osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/ <i>El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</i> Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoa buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua. <i>Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.</i>			
Sinatzailearen izena <i>Firmado por</i>	JUAN IGNACIO ARMENTIA FRUCTUOSO (Concejal Delegado Hacienda)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Seguruak) <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	K6ATY3526ESD433SGT6LWAGT7U	Data eta Ordua <i>Fecha y Hora</i>	28/12/2023 08:54:40
Zerbitzaria <i>Servidor</i>	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea <i>Página</i>	10/10
 K6ATY3526ESD433SGT6LWAGT7U			